

# *Julene Azpeitia*

## *Lehiaketa*

*Ipuin eta bertso paperak 2004*



# JULENE AZPEITIA LEHIAKETA



**IPUINAK ETA BERTSO PAPERAK**


**2004. URTEA**

Argitaratzailea: \_\_\_\_\_



**DURANGO**  
Udala • Ayuntamiento

Laguntzailea: \_\_\_\_\_



**Bizkaiko Foru  
Aldundia**  
Kultura Saila

*Argitalpen honek Bizkaiko Foru Aldundiaren  
Kultura Sailaren laguntza jaso du*

*Izenburua:* Julene Azpeitia Lehiaketa. Ipuinak eta Bertso paperak. 2004. urtea

*Azala eta barruko marrazkiak:* Imanol Larrinaga

*Argitaratzailea:* Durangoko Udala

*Maketazio eta fotomekanika:* Gertu. Oñati

*Inprimategia:* Gertu. Oñati

*Lege Gordailua:* SS-1316/04

2004ko azaroa

## **7 HITZAURREA**

- 7 Mari Jose Balier Orobio-Urrutia  
*Euskara, Kultura eta Hezkuntza Batzordeko presidentea*

## **9 IPUINAK**

- 11 GAZTELU MADARIKATUA  
*Jon Seoane*
- 17 AUZOKOA OSO ARRAROA DA  
*Irene Corcuera*
- 23 ESKUBERO ETA KISKALESKU  
*Libe Solagaistua*
- 29 GOIAN BEGO  
*Eñaut Uruburu*
- 37 INORA EZ ZIHOAN BIDEA  
*Irati Besoy*
- 43 NIRE BAITAKO ZELDAN GATIBU  
*Oihane Unzalu*
- 57 EZIN EZER ESAN  
*Erik Arevalo*
- 65 BIZKARRETIK, HAIN ZUZEN ERE  
*Mikel Zubeldia*

**77      BERTSO PAPERAK**

79      NIRE BALOIA  
*Nerea Oñate*

83      11-M  
*Mikel Zumarraga*

87      GURE HERRIA  
*Kepa Bizkarra*

Aro berriko seigarren edizioa izan da aurtengoa. lazkoan berrikuntza nabaria izan zen, liburua koloretako irudiekin atondu bai-kenuen. Aurtengoan bide horri jarraitu diogu. Izan ere, modu bat da eskola ume eta gazteek egiten duten esfortzua saritzeko: eurek idatziriko idazlanak batu eta txukun argitaratu.

Urtero dago zerbait azpimarratzeko eta 2004ko lehiaketan partehartze handia aipatuko nuke: esan daiteke aro berriko handiena izan dela. Ikastetxeetako lana ere gogora ekarri nahi dut, eurena balitz bezala hartzen baitute lehiaketa.

Nagusien sailari buruz, pare bat hitz: epaimahaikideen araber, idazlanen kalitatea dela eta, urterik urteko maila onari eutsi diogu. Benetan motibagarria da, ikusten baita Julene Azpeitia Lehiaketa sariketa inportanteen artean sartu daitekeela.

Durangon, 2004ko azaroan.

MARI JOSE BALIER OROBIO-URRUTIA

*Euskara, Kultura eta Hezkuntza  
Batzordeko Presidentea*





julene azpeitia  
lehiaketa 2004

**i p u i n a k**









## Jon Seoane

Irabazlea 11-12 urteko sailean  
San Jose - Jesuitak Ikastetxea



## Gaztelu madarikatua

Aspaldi aspaldian Behe Nafarroan herri txiki bat zegoen, eta oraindik badago, Aibar izenekoa. Hango etxeak estilo gotikokoak ziren. Aibar herrian, gaztelu zahar bat zegoen, oso gaztelu izugarria. Goialdea gargolez beterik zegoen, eta eraikitzeko egitura oso berezia zen.

Jendea ohituta zegoen eta gaztelu ondotik pasatzen ziren, ezertaz konturatu barik, gaztelua ez balego bezala.

Den denak, Juanjo izan ezik: gure protagonista. Gargola haiek beldur asko ematen zioten.

Juanjo hamahiru urteko nerabe beldurtia zen. Hori zela eta, bere logelan eta institutuko takiletan lau hostoko hirustak eta zorte oneko tresnak bakarrik zituen.

Gaztelu hark elezahar bat zuen: aspaldi-aspaldian, jendeak zioenez, ilargia betea zegoenean gargolek bizitza hartzen zuten eta etxez etxe joaten ziren haurrak bahitzen. Ondoren gaztelura eraman eta, gau osoa pasatzen bazuten, eurek ere gargola bihurtzen ziren.

Elezahar hark asko beldurtzen zuen Juanjo. Horregatik, behin jolastorduan sentitzen zuena bere lagun minari, Pellori kontatu zion.





- Baina Juanjo! Nola sinesten dituzu umekeria horiek? Kontakizun horiek ume txikiak beldurtzeko dira.

- Orduan, zergatik dago orain itxita gaztelua? Aitak txikitan gaztelua bisitatzerazartu ahal zela kontatu zidan. Badirudi txango batean ume bat desagertu zela.

- Nola izan daiteke hori ? Eraikin batean inor ez da desagertzen.

- Ez da arraroa gargolak antzina bezala egotea?

- Ba, Pello! Ez dut lo trunkin egingo baldin eta nire begiekin ikusten ez badut.

- Ados, ongi da -esan zuen Pellok. Gaur gauean geratuko gara gazteluan eta ikusiko duzu zelako umekeria den!

Hori entzuterakoan erabat beldurtu zen Juanjo.

- Ba... baina Pe... Pello, zure begiekin ikusi nahi duzu, ala ez?

- Be... beno tira, bai, baliteke, gazteluan hamar eta erdietan.

Gau hartan geratu ziren, eta Juanjo berandutxo iritsi zen.

- Berandu iritsi zara, Juanjo! -esan zuen Pellok

- Barkatu ...afaldu behar nuen, eta...

- Bizkor, tira, goazen barrura! -esan zuen Pellok.

Barrura sartu eta Juanjok hotzikara sentitu zuen bizkarrean.

- Pe... Pello nahiko ikusi dut. Eta itzuliko bagina? Gaur ilargi bete da eta ...

- Beldurti halakoa! Hemen ezertxo ere ez dagoela egiaztatzen duzunean itzuliko gara.

Ez ziren asko mugitu eta zarata bat entzuterakoan bueltatu egin ziren. Zer eta geriza bat, itzal iluna, ikusi zuten. Baita barre batzuk entzun ere. Pellok bueltatu eta harro-harro esan zuen.

- Nor dabil hortik? Gu ertzainak gara eta gure aurrean agertzen bazarete tiroka hasiko gara.

Ahotsak, berriro, barre egin zuen.

- Ja, ja, ja, ja ! Ez esan gezurrik Pello !

- No... nola dakizu nire izena ?

- Oh! Ja, ja, ja ! Nik dena dakit zutaz, mutiko. Adibidez: zure alboan dagoenak Juanjo du izena eta zure lagun mina da.

Juanjo aho bete hortz geratu zen, ikarak janda.






- I... ikusten duzu Pello? Istorioa benetakoa da.

Hori esanda, biak lurrera jausi ziren zerbaitek bultzatuta eta, argitan, geriza gargola handia zela ikusi zuten. Harez geroztik inork ez ditu ez Juanjo ez Pello ikusi.

- Eta zuk? Kontuz, nik badakit-eta zer gertatu zen.

Pello eta Juanjo ez ziren inoiz gaztelutik irten... Zehatzago esanez, pertsona lez inoiz ez ziren gaztelutik irten, Pello eta Juanjo gargola bihurtu baitziren. Eta ilargi betea dagoenean gaztelutik irteten dira haurrak bahitzera.

- Nolatan dakidan? Ni gargola nauzuelako, gaztelu hartako gargolen nagusia. Agian, une honetan zure atzean, zuri begira egon litekeen bera! Ja, ja, ja,ja...



**Irene Corcuera**

Akzesita 11-12 urteko sailean  
Landako Ikastetxea





Auzokoa oso arraroa da

Ni Mikel naiz, orain zazpi urte ditut baina ez nator hori kontatzera, txikitako gertaera bat kontatu behar dizuet: Bost urterekin Ondarroatik Donostiara bizitzera joan nintzen. Ordutik hona nire bizitzako beldurrik handiena auzoko gizona izan da. Hau da bere itxura: Burua golfeko pilota bezain burusoila du, azaleko kolorea txokolatea bezain iluna da, begiak belea bezain beltzak eta itsusiak dira, eskuak eta hankak etxe-orratzak bezain luzeak ditu. Sudurra eta belarriak oso txikiak ditu, hortzak handiak eta elurra bezain txuriak. Esku-azpiak oso txuriak dauzka, ezpainen eta ahoa postontzi bat dirudite. Jantzera oso desitxurosoa eramaten du. Gehienetan bakero apurtuak eta kamiseta ilunak eramaten ditu. Laranja, urdina, beixa eta txuri koloreko motxila handi bat eramaten du bizkar gainean. Eskuineko belarrian zirtzilu gorri, berde eta urdin kolorekoa darama.

Egia esan inbidia nion, pentsatzen nuelako, azaleko kolorea, txokolate asko jaten zuelako zela. Hala ere, beldurra eta egonezina sortzen zidan. Motxilan ni bahitzeko edo jotzeko tresnak eramaten zituela pentsatzen nuen. Kanean ikusi eta ondotik, segituan alde egiten nuen.

Egun batean, gurasoak berandu heldu ziren lanetik, auzoko gizona bakarrik nengoela konturatu eta sartzeko eskatu zidan, nik ez dakit nola, baina, beldurrez akabatuta, sartu egin nintzen.





Bere etxera heldu ondoren, hau esan zidan:

- Zer nahi duzu egitea? Jolastu, ala nik ipuinak kontatzea?

Nik harrituta, ipuinak irakurtzea erantzun nion.

- Nire izena, Yohonku da, Afrikan jaio nintzen. Eta zu, nola deitzen zara?

- Ni Mikel -erantzun nion dardarka.


- Apal horretan ikusten dituzun ipuinak, Afrikako aitona oparitutakoak dira.

Oso jakintsua zen eta berak sortarazi zidan irakurtzeko gogo. Gaur egun nire denbora pasa gogokoena irakurtzea da. Motxila barruan ditudan liburuak egunero eramaten ditut liburutegira aldatzera.

Orduan konturatu nintzen oker nebilela nire auzokoarekin. Orduetik aurrera bera izan zen nire lagunik onena. Eskola bukatu ondoren, desiratzen nengoen bere ipuin zoragarriak entzuteko. Marrazkiak egiten ere irakatsi zidan, aitona berari irakurtzen irakatsi zion bezala. Berarekin ikasi nuena hau da: pertsonak ez direla itxuragatik epaitu behar, ezagutzeko aukera eman behar diegula.







## **Libe Sologaistua**

Irabazlea 13-14 urteko sailean  
Kurutziaga Ikastola



## Eskubero eta kiskalesku

Bazen behin eskularru bat, *Eskubero* izenekoa. Oso bihotz onekoa zen: ateratzen zuten bakoitzean asko berotzen zituen eskuak. Itxuraz “atzamarrak” ez zituen oso luzeak eta artilea kolore gorri bizikoa zuen.

Alpeetako etxe handi batean bizi zen eta barruan bero handia egiten zuen. Etxearen inguruan iturri bat zegoen, eta bertatik metal-ura irteten zen. Etxearen atzealdean ortu bat zegoen eta bere ondotik erreka bat pasatzen zen.

Eskuberoren bikotea oso alaia zen, baita barregarria ere. Egun batean, mendira joan ziren, Eskubero, bere bikotea eta Mikel, bere jabea. Bat-batean txakur gaizto bat agertu zen, Mikelek beti zirikatzen zuena. Zakurra lotuta zegoenez Mikelek zirikatu egin zuen, txakurra hainbeste haserretu zen, ze, soka apurtu eta Mikelengana joan zen, eta Eskuberoren bikotea helduta puzka-puzka eginda utzi zuen. Mikelek pena handia hartu zuen eta, beste erremediorik ez zuenez, zakarrontzira bota zuen.

Eskubero oso bakarrik sentitzen zen, bikotea falta zitzaion barre egiteko eta gainera, Mikelek ez zuen Eskubero eskuan ipintzen, bakarra zelako. Egoera honetan,







gure eskularru gaixoak beste eskularru bat topatzeari ekin zion. Bere etxeko kaxoi guztiak arakatu ondoren, eseri egin zen bikotea topatu ezinik. Orduan, Eskubero gogoratu zuen aurreko urtean, aldameneko etxean, txakur berberak beste eskularru bat txikitu zuela eta agian bertan topatuko zuela bikote bakarti bat. Aldameneko etxera joan eta han, kaxoi zahar artean, eskularru bakartia aurkitu zuenean berarekin joan nahi zuen galdetu zion, eta honek baietz erantzun zion poz-pozik.

Etxera itzuli zirenean, *Kiskaleskuri*, aldameneko eskularru bakartiari, txoko bat egin, etxea erakutsi eta oso pozik ibili ziren. Egun hartatik aurrera Mikelek Eskubero eta Kiskalesku berriz ateratzen zituen kalera eskuak berotzeko.


Aste batzuk igaro ondoren, Eskubero Kiskaleskuri kasu gehiago egiten ziotela pentsatu zuen: arinago hartu, bera edozelan bota eta Kiskalesku txukun utzi ...

Hau pentsatzean Eskubero eskularru hobea eta maitatuagoa izatea erabaki zuen. Ateratzen zutenean gehiago berotzen zituen eskuak hartarako. Kiskalesku leloa ez zenez, egoeraz jabetu ondoren, bera ere gauza bera egiten hasi zen. Lehia honetan zebiltzala, Mikelek eskuetan bero gehiegi sentitu eta, amorratuta, biak askara botatzea erabaki zuen.

Uretan murgildurik zeudela biak maitatuak zirela ohartzean, adiskidetu egin ziren. Banan-banan ez ziren ezer, bikotean taldea osatzen zuten!







## Eñaut Uruburu Martinez

Irabazlea 15-16 urteko sailean  
Kurutziaga Ikastola



Goian bego

*“... Ume, ondo akorduen eukin nire berbak,  
sekule ez daittezan ahaztu, sekule ez daittezan galdu...”*

Nire aita eta ama bi urte nituela hil ziren noraezean zihoan itsasontzi batean, zelan eta zergatik ez dakit. Amama orde, duela urte batzuk hil zen bihotzekoak emanda. Horregatik, esan daiteke nire aitona izan dela inoiz izan dudana lagun eta maisurik onena; beti ere, merezi nuena baino gehiago eman eta zerbait banintzela sinestarazi nahi izan zidalako.

Gogoan daukat behin basora joan ginenekoa, aitona, Perla txakurra eta hirurok. 35 gradu inguruko egun sargori baten, ez dakit perretxikotan, basoa garbitzen edo zertan joan ginen, baina berdin dio. Hara heldu eta lehenengo aurkitu genuen eta gerizpetan zegoen enbor baten gainean jarri ginen. Denbora luzean inguruetara begira egon eta gero konturatu nintzen zein leku ederrean bizi ginen. Orduan aitona, isiltasuna apurtuz, zera esan zidan: *“Saparrotan sarriten etorten gintzuazen hona perretxikuten, baina tximinijatik urteten daben keie baino arpelaue nitzuan, eta edadiaz ikesi najjuan neuk be. Badakik, buruik kantzetan ez dabenak hankak kantzau biher. Lagunen aurrien arro ibili biher eta ehiztarijen moduen eitten gainuan, bat bota ta bost kontau. Beti batak bestiek baino haundijaue botaten jjuan. Atzenerako, bata edo bestie zalako, harrike amaitzen zuan kontue. Harek bai harek denporak!!”*





Azken baten gu ere zelan ibiltzen ginen ba? Agian beste gauza batzuegatik baina “antzerako paresido”.

Etixerantz joateko ordua ere bazen eta beherantz abiatu ginen, baserrirantz. Etxera bueltan hainbat jende ezagun asko ikusten genuen eta pertsona bakoitzak beti izaten zuen zer esan, bata pinutik jausi eta hanka apurtu zuela eta horregatik herren ibiltzen zela, besteak hanka aizkorarekin bi zatitan egin zuela, beste batek begia falta zuela harri-ka “lagun” batek jo zuelako...

Untzilla, Larringan eta Bizkerrekotik bueltatzea eman eta gero, gure txoko ederrera heldu ginen, gure jaiotetxe, bizitoki eta gerora begira gure habia izaten jarraituko zuena.

Gazta zati bat ogi artean hartu -egunero egiten genuen bezala- eta aitona ardiak batzen, oiloei zein untxiei jaten ematen edo dena delakoa egiten hasten zen eta nik ahal zen guztietan gustura laguntzen nion, horrela gero nire ofizioa izango zena ikasten nuen.

Egun horietako batean, gaztainadiko landara joan ginen ardiei begiratu bat ematera. Han geunden biok, zeri begira ez dakit, niretzat ardi denak baitziren berdinak. Berak ordea denak ezagutzen zituen banan-banan. Nire barrenean interesa sortu zitzaidan eta zenbat ardi zituen galdetu eta *“117 eta aharittue, igez ardi gehijjau neukezan baina otzuek dozena erdi tragaujuuzen neguen”* esan zidan.

Banan-banan kontatzen hasi nintzen baina konturatu nintzen alperrik zela. Ondo ez dut gogoratzen baina horrelako zerbait esan zidan ardiak kontatu ezinik nenbilen uean: *“Pastorien bizimodue gogorra dok ume, baina baitte politte be. Gaur egunien gatx jjak hortik bizimodue ataratie, horregatik sarri esan jjuat baserritarrak kostata irabazten dabela bere eguneroko ogijje, ta biher asko eindde”*

Leku fijo batera begira jarri zen denbora luzean, oroitzapenen bat burura etorri balitzaio bezala, eta begiak erdi bustiak zituenean zera esan zidan: *“Baserritarrak ganauek zapaltzen daben lekutik ibili bijjok ondo ibiltteko”*

Buruari asko eragin nion egun horretan. Bere hitzak zalantza bihurtzen ziren nigan. *“Ala Perla, batu ardixek eta guezak etxerutz”* esan eta baserrira bueltatu ginen.







Burua handitzen ari zitzaidan sentsazioa nuen. Erantzunik gabeko hainbat galdera pilatu zitzaizkidan.

Egun horretan bertan, baserrira heldu eta *“lagundistek artue urkultzen”* esan zidan. Han izan ginen txapako berotasunaren ondoan ordu betez lanean. Ni nire zalantzei erantzunik bilatzen saiatzen nintzen eta berak, ordea, niri zer pentsatua ematen jarraitzen zuen. *“Baserrije aurrera ataratie gatxa dok, baina 14 urte be badekezak eta nirie dan dana hiretzat itxiko jjuat. Hi hemen bizi hazela jakin ezkeru bajjakiat behintzet gustora hilko nazela”*

Akorduan dut afaria hainbestean joan zela. Orduan konturatu nintzen, aurkitzen zail den aitona bat nuela. Afaria amaitzerakoan artoarekin ekin genion berriz ere.

Jadanik ilun zen kanpoan, eta aitonak burua altxatuz hau esan zidan: *“Etorri hai hona ume eta beittik kanpora, gaurko moduen ez dozak izerrak egunero ikusten. Bizimodue ederra dok baina erlojuen orratzak hegan eitten jjabiek eta norbera konturatu orduko halako baten geratu eingo dozak niretzat be. Laster, ume, zeruko izerrei beste bat batuko jjakek ondora. Ez dakik, baina, hire aitte ta ama han dazek. Hamen ez ba dok, egon hai trunkil, han ikusiko nok-eta gabero-gabero”*.

Ez nuen nahi baina barruan neukana kanporatu beharra neukan eta negarrari ekin nion. Ni kontsolatu nahian altzoan hartu eta *"Ume, ondo akorduen eukin nire berbak, sekule ez daittezan ahaztu, sekule ez daittezan galdu"* esanaz besarkatu ninduen.

Eta zoritxarrez horiek izan ziren bere azken hitzak. Orain GOIAN BEGO.

Berak esan bezala zerura begiratzen dudan bakoitzean badakit han dagoela, han urrunean. Gora begiratzen dudanean, zerbait zor diodan sentsazio hori izaten dut, hainbeste nuen berari erakusteko eta hainbeste zuen niri erakusteko.


Gau izartsu hartan ulertu nituen bere hitzak: *"Baserritarrak ganauek zapaltzen daben lekutik ibili bijok ondo ibiltteko"*. Ya lo kreo!! Ordutik aurrera beti esaldi bera dator kit burura ama eta aita izar artean ikusten ditudanean.

Ahal den moduan bizitza aurrera atera dut. Auzokideen laguntasunak asko poztu dizkirate nire pena eta tristurak. Orain nire lagunik onena Perla txakurra da. Lehengoa hil egin zen eta honi ere izen berdina jarri diot, horrela aitonaekin banengo bezala sentitzen naiz.

Zuei idatzitako hau, ardiei begira eta nire lagun Perla ondoan dudalarik, landa baten erdian luze etzanda egin dut. Oso pozgarria izan da nire oroitzapen apur batzuk gogora ekartzea. Beste bi egunean jarraituko nuke, baina hobe horrela amaitzea. Ala Perla, batu ardiijek eta guezak etxerutz!!







## **Irati Besoy Bilbao**

Akzesita 15-16 urteko sailean  
Kurutziaga Ikastola



Inora ez zihoan bidea

Herriaren sarreran hiru bide zeuden: bat itsasora zihoana, bestea hirira eta hirugarrena ez zihoan inora.

Josebak ondo zekien hau, herritar gehienei galdetu ondoren denek erantzun bera eman baitzioten.

- Hango bide hark?
- Ez du inora eramaten. Alferrikakoa da hortik jarraitzea.
- Eta noraino iristen da?
- Ez da inora iristen.
- Zertarako egin zuten orduan?
- Ez zuen inork egin. Betidanik dago han.
- Baina ez al da, inoiz, inor, noraino iristen den ikustera abiatu?
- Kaskarra zara gero, benetan! Ez al dizut esan ez daramala inora?
- Nola jakin dezakezue hori inoiz joan ez bazarete?

Hain zen tematsu, Joseba Burugogor deitzen hasi baitzitzaizkion, baina horregatik haserretu beharrean, inora ez zihoan bidez pentsatzen jarraitzen zuen.

Kalea aitonari eskutik heldu gabe zeharkatzeko edatea izan zuenean, egun batez, goiz-goiz herritik irten eta ezkutuko bide hartatik abiatu zen, beti aurrera.

Bidea zuloz eta belar txarrez betea zegoen, baina zorionez ez zegoen putzurik, aspaldian ez baitzuen euririk egiten. Bidearen ezker-eskuinera sastraka zabaltzen zen eta berehala hasi zen basoa. Zuhaitzen adarrek, elkar gurutzatuz, bidea itzalpe ilun eta fresko bihurtzen zuten. Eta itsasargiaren gisa, han-hemenka eguzki izpiren batzuk irristatzen ziren.





Ibili eta ibili, bidea ez zen inoiz amaitzen. Josebari oinak minberatu zitzaizkion eta itzultzekotan zegoen, bat-batean zakur bat ikusi zuenean.

«Zakur bat dagoen tokian etxe bat egon behar- pentsatu zuen Josebak- edo gutxienez gizon bat».

Zakurra isatsa alaiki mugituz hurbildu zitzaion eta eskuak lamizkatu zizkion, gero bideari ekin zion tarteka Josebak jarraitzen ote zion ikusteko itzuliz.

- Banoa, banoa -zioen Josebak kuriositatez beterik.

Azkenik basoa argitzen hasi zen, zerua adar tartean berragertuz eta bidea burdinazko hesi handidun atari baten aurrean amaitu zen.

Burdinazko barroteetatik zehar, ate eta leihoak parez pare zabalik zituen jauregi eder bat ikusi zuen Josebak. Kea, tximinia guztietatik irteten zen eta balkoi batetatik andre eder bat eskuarekin agurka eta alaiki oihuka ari zitzaion:

- Aurrera, aurrera, Joseba Burugogor!

- Kontxo -pentsatu zuen Josebak poz-pozik-, nik ez nekien hona iritsiko nintzenik, berak baietz dirudi, ordea.

Burdinazko ateari bultza egin, lorategia igaro eta jauregiko egongelan sartu zen, eskailera mailak jaisten ari zen andre ederra agurtzeko unerik aproposenean. Oso zen ederra: ipuinetako maitagarri eta printzesak baino dotoreago jantzita zihoan. Oso alaia zen eta horrela galdetu zion Josebari barrezka:

- Ez zenuen, beraz, sinistu?

- Sinistu, zer?

- Inora ez zihoan bidearen historia?

- Lelokeria galanta zen. Nire ustez bideak baino toki gehiago daude.

- Horixe da. Garrantzitsuena ibiltzeko gogoia edukitzea da. Zatoz, gaztelua erakutsiko dizut.








Ehun baino gela gehiago bazeuden han, mila motatako altxorrez beterik; ipuinetako Eder Lotiak lo egiteko eta zuhurak dirua gordetzeko gazteluetan eduki ohi zituzten bezalakoxeak ziren. Hantxe zeuden bere begien aurrean: diamanteak, harri ederrak, urrea, zilarra eta momenturo andre ederraren ahotsa.

- Hartu, hartazu nahi duzun guztia, gurditxo bat utziko dizut zama eraman dezazun.

Eta Joseba, pozaren pozez, noski. Itzultzeko bidea hartu zuenean, gurditxoa bete-bete zeraman. Zakurrak, horretan ikasia, zaldiak gidatzen zituen eta baita zaunka egin ere lo hartu edo bidetik irteten zirenean.

Herrira iritsi zenean, herritarrek sorpresa handiz hartu zuten, hila zegoela uste baitzuten. Zakurrak gurdiko altxor guztiak jaitsi zituen. Agur gisa isatsa bi aldiz astinduz, gurdira igo eta hauts laino baten erdian alde egin zuen. Josebak, lagun eta etsaien artean banatu zituen opariak eta gertatutakoa behin eta berriz kontatu behar izan zuen. Eta bukatzen zuen bakoitzean, norbait presaka etxera joan, gurdia hartu eta inora ez zihoan bidetik abiatzen zen.

Baina ilunabar hartan itzuli ziren denak bata bestearen atzetik, goibeldurik, etsiturik. Beraientzat bidea basoaren erdian amaitzen zen, zuhaitz lodi eta arantza sasi batzuen aurrean. Ez zegoen beraientzat ez burdinazko ataririk, ez jauregirik, ez andre ederririk. Altzor batzuk bide berriari lehenengo ekiten dionarentzat bakarrik baitira eta, lehenengoa, Joseba Burugogor izan zen.



## **Oihane Unzalu Aldekoa**

Irabazlea 17-18 urteko sailean  
Frai Juan de Zumarraga Institutua



Nire baitako zeldan gatibu

*Euskara da gure territorio libre bakarra*

### **Urtarrilak 12 asteartea**

*Gaur ez nago pozik. Gaur, gorrotoa da sentitzen dudana. Izan ere, denak berdin jarraitzen du, ezer ez da aldatu. Goikoek, mintzo dudaz hizkuntza, nire herria, nire izate osoa, maite dudaz hura zanpatzen duten artean, ezer egin ezinaz sortzen didan inpotentzian murgiltzen naiz. Eta honen inguruan pentsatzean, eta tristurazko sentipen horren ondorioz, begietako kobazuloetatik, ur gaziko tanta ikusezinak ateratzen zaizkidalabari dut. Ondoren, masailetakoz maldan behera abiatu dira bata bestearen atzetik, 1 m eta 60cm eskas dituen gailurretik behera doazenak, abiada bizian, eta geroago, lur gogorarekin talka egitean bizitza eta heriotzaren arteko muga igaroko dute.*

*Zerbait egin behar dut. Maite dudaz hura defendatu behar dut. Ezin dut hiltzen utzi. Horixe baita nire izatea eraikitzeko piezak sortzen dituen makina.*

Korapilo bat daukazu barrenean. Aska ezina. Burua erabat nahasturik duzula, barrua hutsik sentitzen duzu. Eta hor zaude, etsipenak jota, gaitz honi nola aurre egin ezin asmatu; beraz, minbizia baillitza hedatuz doakizun artean. Dena daukazun uneetan, zerbait falta zaizula nabari duzu. Dena da gabezia zure baitan. Eta ezin ulertuko duzu zergatik. Orduan, betetasun bat sortaraziko lizukeen zerbaiten bila hasten zara, orrialde hutsetako liburuetan barrena. Aurkitu ezin eta etsipenarekin borrokan. Baina, gaurkoan ere, bila zenbiltza horri hutsune garratz batek kenduko dio lekua.



Gaua da. Izarrik gabeko gaua zuretzat. Zure buruarekin haserre eta lur jota, ohera zoaz. Eta bihar beste egun bat izango denaren ametsetan igaroko duzu gaua. Ezer aldatuko denaren esperantza handirik gabe. Bihar, berriz, begiak irekiko dituzun jakin gabe. “*Eta horrela gertatuko balitz? Une hau izango balitz nire bizitzako azkena?*” pentsatu duzu. Orain ohartu zara; horrela balitz, zure pentsamendu, bizipen eta sentimenduak zure gorpuekin batera ehortziak izango lirateke. Zure izate osoa oroitzapen eska-setan bilakaturik geldituko litzateke. Ehun pertsonatik gorak gogoratuko zintuzke zure heriotzaz berrogei urte geroago ere, baina benetan, hor sakon-sakonean, inork ez luke jakingo nor izan zinen.

#### Urtarrilak 20, asteazkena

*Gaur, berriz ere, zerbait naizela sentitu dut. Gaur, berriz ere, norbait naizela sentitu dut. Gaur, berriz ere, ni naizela sentitu dut. Gaur, berriz ere, aske sentitu naiz. Behingoan, euskaldunok sentitzera kondenaturik gauden inpotentzia horretatik aske. Gaur eman dut lehen pausoa. Losuk, horrelakorik ez egiteko esan dit, arriskutsua dela, behin sartuz gero ezin aterako naizela... Batzuetan nire ama bailitzan jokutzen du. Egiteko bat dut. Eta horretarako nire sorterrira itzuli beharra daukat. Behin, ustezko etorkizun hobe baten truke saldu nuen tokira.*

Ostirala da. Beste ostiral bat. Arraro sentitzen zara asteko egun honetan. Asteko ostiral bakoitzean. Tren geltokian zaude. Bakarrik. Zure helmugara eramango zaituen trenaren zain. Herri hartara zoaz, zure oroitzapenak besterik gordetzen ez dituen herri hartara. Sortu zinen tokira. Badirudi zure bihotzeko zoko ezkutu bat bisitatzera zoazela. Trena parean duzu. Jendea aurrera eta atzera. Maletak han eta hemen. Eskuartean darabilzun zigarroa botatzeko garaia da. Pena emango balizu bezala begiratzen diozu; ondoren lurre-ra bota duzu eta gupidagabe zapaldu, belar idorrezko tripak atera arte. Barruan zaude. Eserleku huts eta bakarti bat ikusi duzu, bertan eseri zara. Pppppiiiiiiiiiiii!!!!!!! Txilibitu hotsa. Trena abiatu da.



Ez duzu libururik hartu irakurtzeko, zuk ez daramazu inolako bizkar-zorrorik. Izan ere, bidaia laburra da oso. Baina zugan, beste mundu batera bidaiatuko bazenu bezala izango da. Denboran atzera egingo bazenu bezala. Mugak, iraganak eta orainak ezarriko dituztelarik.

Iritsi zara helmugara. Iritsi zara zure sorterrira.

### Urtarrilak 22, ostirala

*Bete dut egitekoa. Harro nago. Baina... beldurra sentitu dut, beldur handia. Beldurra eta dolumina. Gizon harengan eta bere senitartekoengan pentsatzean, barne zauri desatsegin bat ireki zait. Dena den, bide bakarra dugu aurre egiteko. Bi aukera daude; edo beraiek, edo gu. Baina, harro nago neure buruarekin.*

Neguko egun triste horietariko bat da hau, zeinetan hotzak eta iluntasunak presentzia nabaria duten. Ezker eskua zigarroarekin kateaturik duzula, zutik zaude, zure haurtzaroko orduak igaro zenituen jolastoki hartara begira. Haurren oihuak eta algarak entzun ditzakezu zure baitan. Berriz ere haur sentitu zara, berriz ere zorionsu. Ezjakintasunaren mantupean goxoki babestua, erabat babestua sentitu zara.

Hotz egiten du. Eta zigarroa eutsiz darabilzun eskua izozten ari zaizula nabari duzu, baina ez zaizu gehiegi ardua, ez baita zuretzat nahiko arrazoi berau lurrera botatzeko. Oraindik ere pizturik dirauten sentikortasunezko izpi oldarrak urrituz doazkizu segundo bakoitzean. Izozten ari zarela sentitzen duzu. Bat batean, estalki eta babesleku duzun sabaitik behera eroriaz doazen ur tantek lurra jotzean eginiko hotsak, murgilduta zeundeneko mundu isil eta baketsutik atera zaitu berehala. Momentu horretan, so egin diezu, zure bakea haustearen ordainez zurekin zorretan daudenaren begiradekin. Begira zaude oraindik ur txorrotadek sabaitik nola jauzi egiten duten gero lur gogorarekin tupust erabakior bat egiteko. Tanta horiei begira zaude oraindik, sorgindurik bezala. Hauen heriotza behatuz ari zara, nola desintegratzen diren, desegiten diren, hiltzen diren.

BBBOOOOMMM!!!!!!!!!! Zeru lurrek dardara bortitz bat egin dute bat batean. Zure eginbeharrak igaro du bere jomuga, bere meta.

Une honetan, haize hotzaren pasiadak nabaritzen dituzu zure masailetan barrena, aurpegia izoztuko dizula ematen du. Min arin bat ere sentitzen duzu, ganibet baten bizarrak azala karrazkatuko balizu bezala. Orain hotzikara bat egin da zure gorputz osoaren jabe. Beherantz begira jarri zara, egin duzun horretan pentsatzen. Une batez, lotsa sentituko bazenu bezala. Une batez, lotsa, beldurra,... une batez, damutasunak bilduko bazintu bezala sentitu zara. Une batez, errudun. Ozta-ozta gerriraino helduko zaizun aurreko pareta txikiari begira jarri zara. Eta kolore bizietakoa gogoratzen duzun pareta hori, txuribeltzean ikusten duzu, eta are errudunago sentitzen zara orain.

### Urtarrilak 23, larunbata

*Orain etxean nago. Ni bakarrik. Bakarrik bai, losuk eta biok eten egin dugu. Beno, zu ezin zaitut engaina nire eguneroko maitea, utzi egin nau. Zuk hain ondo dakizun erabaki hura ezin onarturik alde egin du. Oraindik ere bera baino garrantzitsuagoa ote den ongi ez dakidan horren ondorioz galdu dut. Ordu erdi igaro dut atera begira. losuk atea irekitzean egurrak ateratzen duen oihu mingarri hori entzun zain, hori aditzeko esperantzaz. Bi ordu igaro ditut mahai gaineko telefono beltzari begira, honen txirrin hots*





*monotono eta desatsegina entzuteko esperoan, hori aditzeko desiraz. Esku batean zigarroa eta bestean biok agertzen gareneko argazkia laztanduz aritu naiz. Orduan ohartu naiz. Orduan ulertu dut. Ez da itzuliko.*

Gaur, esnatu zarenean, maite duzun horri hutsune garratz batek lekua kendu diola ohartu zara. Ohearen bestalderantz biratzean, ausentzia topatu duzu, begirada tinko batez so egiten dizularik, zure zain balego bezala. Orduan, zure barrenean korapilo bat ehunduz joan da astiro-astiro. Arnasa hartzea bera ere eragotziko dizun korapiloa. Burua erabat nahasturik duzula, barrua hutsik sumatuko duzu. Gaur, bakarrik sentitzen zara. Bakarrik tamalez. Bakarrik berriz ere.

Orain, bakardadea delarik arnas dezakezun oxigeno bakarra, denboran atzera egin nahiko duzu une batez, berriro iraganera bueltatu; horrela, agian, gauzak ezberdinak izan litezkeela imajinatzen duzu. Momentu honetan, guzti hau amets gaizto bat bailitzan irudikatzeko gai izan nahi zenuke. Gaizki sentitzen zara, zure bizitza osoan zehar eraiki duzuna amildegi batean galdua dela ohartzen zarelarik.

### Otsailak 12, osteguna

*Egunotan nahiko pozik ibili naiz. Pozik neure buruarekin. Pozik inguruan eraiki dudanarekin. Eta batez ere pozik naizen bezalakoa izatearren. Baina gaur nire iraganak oraina jango ote duen beldurra sentitu dut. Gaur nire oroitzapenetan gordetzen dudan arantzak ziztada berri bat egin dit, odol tanta garratz bat isuriaz. Gaur, orainaren erlojuak bere orratzak atzera begira jarri ditu. Orain denbora atzerantz balihoa bezala sentitzen naiz. Berriz ere triste. Berriz ere bakarrik. Berriz ere beldurturik. Oraindik ere nire memorian hain bizi dirauten egun mikatz haietan bezala.*

Etxean zaude, liburu potolo bat eskuartean duzula. Hitzak esaldiak, parrafoak... astiro irakurtzen dituzu orrialde horietan ezkutuan dirauten gauza guztiez jabetu nahirik bezala, bat batean telefonoaren txirrin hotsak mundu horretatik bortizki atera zaituen arte. Eta telefonoa ondoan badaukazu ere, ez duzu aurikularra jaso. Hiru aldiz jo du. Eta zu geldi zaude beroni begira, izozturik bezala. Isildu egin da. Orduan erlojuari so egin diozu,

segundorik segundo aldatuz doazen zenbaki horiei begira zaude, nola batzuk ezerezean desagertzen diren, beste batzuei segundo bateko bizitzaren jabe izateko aukera emanaz. Bi minutu igaro dituzu horrela. Ostera ere telefonoa zarataka hasi den unera arte. Lau txirrin hots oraingoan. Ulertu duzu mezua. Heldu da momentua. Bihotz taupadak azkartu egin zaizkizu supituki, artega zaude zeharo. Liburua mahai gainean utzi duzu axolagabe-ki. Chesterfield paketea atera duzu galtza beltzetako patrikatik, zigarro bat ahoratu eta su eman diozu, birrikak kez bete dituzularik. Eta ustekabean, sentsazio arraro batek bildu zaitu. Une batez, pentsakor gelditu zara, eta eternalki, liburua eskuartean duzula, jesarri-ta egon zareneko besaulkiari itsatsita geldituko zinatekeela sentitu duzu.

### Otsailak 17, asteartea

*Askotan uste izaten dut nire ingurukoek errealitatea ikusteko gaitasuna galdua dutela. Izan ere, errealitatea hain egiten da latza batzuetan, ezen, estali beharrean aurkitzen baikara sarri, hondoa jo ez dezagun.*

*Egunero bidean aurrera egin beharrez esnatzen naiz. Bai beharrez, ez gogoz. Bide zidorrean aurrera egin nahirik gabiltza mila kiloko gurdia besoen indarrez eraman behar dugularik. Nik indar guztiz bultza egiten diot, beti aurrera, aldatzean gora eta zirkin amiñi batek bete egiten nau. Baina hala ere, gorantz begiratu eta ez dut helmugarik bistaratzen. Ez dakigu ziur gure metara noizbait iritsiko garen, ez dakigu meta hori existitzen den ere. Hamar pausu eman ditugu. Horietatik lau gibelera eta bat zulora. Zulora jausten garen bakoitzean gutariko batek ordaintzen du gu guztion zorra, gaur bera izan da, bihar ni izan naiteke, eta etzi zu. Benetan merezi ote du horrela sufritzeak? Galdera hauxe dardar-bilt buruan etengabe, oraindik ere gelditzen zaizkidan indar urriez gurdia tira eginez. Nekaturik nago, ahuldurik, nazkaturik. Jada ezin dut gurdia bidean gora jaso. Zerraldo erori naiz lurrera. Azken bultzada eman diot. Ez da mugitu. Aitzinera begiratu dut. Ez dago helmugarik Ortzirantz begira nagoelarik, zeru lurrek bat egiten duten tokira arte gurdia bultzaka eraman behar izango dugula iruditzen zait. Euskal Herriak pisu handiegia dauka berrogei eskuren indarrez norabait eramateko.*



Jada ez duzu ezertan sinisten, jada zeure buruarengan ere ez duzu sinisten. Ingurutzen zaituen oro fartsa hutsa dela irudituko zaizu une honetan. Bizitza eta zeure burua bera arrotzak egiten zaizkizun une hauetan zure existentziari zentzua bilatu nahirik zabilta, ezinean, hala ere. Eta, nolana ere, hor zaude, nor zaren eta hor zer egiten duzun zeure buruari galdezka. Eta ihardestea ezinezko zaizularik, erantzunak garrantzirik ez duela sinestarazi nahiko diozu zeure buruari.

Une honetan bizitza gogorregia egingo zaizu. Une honetan, bizitza zigorra begitanduko zaizu. Une honetan, ezingo duzu gehiago. Etxean zaude, bakarrik, baina ez da hori latzena, latzena benetan bakardade hori barreneraino sartua daukazula da.

Ohean zerraldo zaude. Egun osoko astuntasunaren gehiegitasuna nabaritzean kexatzen ere hasia zen zure bizkarrak lasaitu ederra hartu du ohean gorputza luzatu duzunean. Oheko burkoaren gainean dagoen kuxin ezin leunago baten gainean burua jarririk duzularik, izara artean ezkututzen dituzun hankak gorantz tolesturik daukazu. Orriak bukatzean dituen ingurrazia zure izterren gainean jarririk, bolaluma leunki, erritmikoki dantzarazten duzu. Eta gogoetan gelditu zara une batez, izan ere, gaur, oheratzeko garaia noiz iritsiko pentsatuz esnatu zara. Bakarrik esnatu zara. Orain, ordea, bihar beste egun bat izango denaren esperoan oheratu zara. Loak al bait arinen hartuko zaituen esperantzaz. Behingoagatik lo lasai egin nahi zenuke, zure barnea zulatzen duten pentsamendu horietatik at. Barrena garbi sentitu nahiko zenuke, eguneroko nahaspila horren presentziarik gabe. Irtenbiderik ez duen gauza berari milaka buelta eman gabe. Arazorik gabe. Amesgaiztorik gabe. Behingoagatik, bake eta armonia osoan. Egun osoan urrutian sentitu duzun poztasun hori guztia gauez jaso nahiko bazenu bezala, gaua zurekin zortetan balego bezala sentituko zara. Horregatik idazten duzu. Koaderno horretako orrialdeak, errealitateari ihesi egiteko pasaporte bat dira zuretzat; eta beraietan zure sentimendu, sentazio, eta pentsamenduak adierazteak hegoak ematen dizkizu, askatasunera abiatzeko.

Eta zure hitzak behin eta berriz irakurtzen dituzu. Pesimismoa nabari da beraietan. Edo bestela esanda, etsipena, oinazea, pairamena... orrialde horien atzean ezkututzen dira. Lau pareta hotzen artean harrapaturik datzan arima mintzo baita hitz horiekin. Edozeren gainetik askatasuna errebindikatzen duen arima. Mundu ezberdin batez amesten duen arima. Zure arima.



## Otsailak 21, larunbata

*Beldur naiz. Ez dakit zer egin, ez nola jokatu, ez zer pentsatu. Nire azkeneko lanak ez du amaiera onik izan, arriskuan nago. Eta nire bila badatoz? Etxean materiala daukat. Harrapatu egingo naute. Kaka...! ez dakit zer egin. Alde egin dezaket. Baina nora? Amaren etxera ezin joan naiteke. Zer egingo dut? Nire bila etorriko dira, harrapatuko naute. Agian losuk arrazoi izango zuen...*

Zure aurrean neska bat ikusten duzu. Nahigabea eta tristura agerian uzten dituen aurpegi liraina du. Ile luze eta leuna sorbaldetan barrena eroriaz doakio. Bere begi gorrituekin so egiten dizularik, negarrez aritu dela igarri izango diozu. Begietara begiratzen diozu finko, eta begi horien atzean zulo beltz bat dagoela jabetuko zara. Eta ezin ulertuko duzu zer den, eta zer esan nahi duen.

Gaztea da oso, baina hala ere, zigarroa esku artean ukanen duela dakusazu. Eta momentu horretan bere biziak garrantzirik ez duela jakingo duzu. Honela irakurriko duzu bere begietan, jada amestea zer den ere ahanztzia duela. Esperantzaren haziak erein eta gogoz eta maitasunez ureztatu arren, fruiturik atera ez izanagatiko etsipenak harrapa-

tu duela irudituko zaizu. Ea burutik zer pasatzen zaion itaundu nahiko diozu, baina isilik gelditzen zara. Ez diozu ezer esanen. Hala ere, begira daukazu oraindik. Eta zuk ere, begiekin so egiten diozu. Eta zuen begiradak guztia ebidenteegia egiten duela sentituko duzu. Esku bat jaso du neskak orduan, zu ukitu nahiko bazintu bezala, zurekin bat egin nahiko balu bezala. Zuk ere momentu berean zure besoa altxatu duzu eta berearengana zuzendu, baina elkarri ezer esan gabe. Bat-batean, eskua aurrerantz daramazularik, zure eskuak ispiluaren kristal hotzarekin tupust egin du. Eta momentu horretan negarrez hasi zara, jada zeure burua ezagutzeko ere ezgauza zarelako, jada zer zaren ere ziur ez dakizulako, jada nor zaren ere ez dakizulako. Zure etorkizuna gero eta ebidenteagoa den arren, gero eta arrotzagoa egiten zaizu, honek etsipenaren morroi bihurtzen zaituelako.

### Otsailak 22, igandea

*Nire haurtzaroko igandeez oroit naiz. Ama eta aitarekin mezara joaten nintzenean amak beti nire soinekorik ederrenaz janzten ninduen. Kolore gorriko lazoak jartzen zizkidan beti nire ile artean kateaturik. Igande haiek, nire herriko igandek. Nire herrian egon nahi nuke orain ere, txikitan jolastu ohi nuen patioari begira. Txikitan jolastu ohi nuen zinburuetan. Ama jesarrita egoten zeneko banku hartan. losu lehen aldiz musukatu nuen toki hartan. Baina jada, berandu da, beranduegi. Eta egia esan behar badut, momentuotan, damu naiz. Esanak beharko luketen hitz horiek ahoskatzeko beta nahi nuke izan. Azken aldiz, maite zaitut esateko aukeraren jabe izan. Baina jada berandu da, beranduegi.*

*Gaur, haizea izan nahi nuke. Inoiz, inor ibili ez den toki magiko horietan zehar paseatzeko. Haizea banintz inoiz amaierarik izango ez lukeen bidaia eginen nuke. Inoiz inork imajina ezinezko bidaia. Zeruranzko bidaia. Jada ezerk ez du zentzurik hemen. Jada idazteak berak ere zentzua galdu du, inoiz izan badu behintzat. Hemen nabil idatzi eta idatzi, gau eta egun, eta egia esan ez dakit zertarako. Ez dakit nori izkiriartzen diodan. Ez dakit hor, bestalde horretan, noizbait, norbait egonen den ere. Gaur, orain, dena arrotz egiten zait. Dena ezberdin. Badator otsoa, badator. Bere letagin zorrotzek urrundik didiz egiten diotelarik. Badator bai, badator, begiak zabal eta pauso arinez. Badator otsoa,*

*badator, nire bila. Beraz, orain, hemen, honela, dena bukatzen da. Hauxe izanen da akaso ene diosala. Hauxe da nire bizitzako azken orrialdea.*

Izerditan eta negarrez iratzarri zara. Beldurrez, dardarka. Ingurura begiratu duzu bi eskuez malkoak xukatzen dituzun une berean. Eta bai, hor zaudete biok; zelda ilun horretan gatibu. Hor zaudete biok bai, zu, eta zure iragana. Orainik eta etorkizunik ez den munduan. Barrote hotzek mugarri papera hartzen duten toki horretan. Zarenak ardura ez eta izan zinenak pisu guztia hartzen duen lekuan.

Lehen etorkizun hobe bat eraikitzen igaro ohi zenituen egunak oro, igaro zenuen bizia oro. Orain, aldiz, gerorik ikusi ezin eta gibelera begira bizi zara, zeure oroitzapenen gatibu.

Gogoetan hasi zara. Izan ere, aspaldi da bisita ezak inolako dudarik, inolako itaunik sortarazten ez dizula. Zure lekualdatzearen gibeletik. Aspaldi da zure buruari ea zergatik zauden hor galdetzen ez diozula. Aspaldi da nor zaren ere ez dakizula. Aspaldi izan zinen horri begira bizi zarela.


Hor barruan zaudenetik ez zara berbera. Batzuetan pertsona izateari ere utzia diozula pentsatuko duzu. Orain jada zerura begiratzeak ere ez du zentzurik izanen zuretzat. Jada ezin diozu zure zeruari so egin. Hor, begi bistan, izanen dituzu eguzkia eta orbain zuridun oihal erraldoia ere. Baina zer axola, ez da zeru bera. Eta hura aurrean duzula, oroitzen zara nola liluratzen zintuzten haizeak egin ohi zituen ibilbideek, zeruko urdintasunak besarkatzen zituen mendi gailurretan barrena. Zure mendietan barrena.

Haizea darabilzu orain buruan; izan ere, bera da orain txunditzen zaituena. Berau da mezularirik fidelena. Eta, agian, haize hori zure mendi eta bailara horietan barrena ibilia izango dela otu zaizu, eta agian, soilik agian, amaren besarkada edo Josuren musu bat ekarriko dizula pentsatu duzu.

Pentsatuz ari zara. Orain ohartzen zara. Inoiz existitu ez den orrialdean, inoiz idatzi ez duen boligrafoz, inoiz idatziak izan ez diren hitz multzo soila dela zure bizitza, inoiz orririk izan ez duen liburuan izkiriaturik.







## **Erik Arevalo Muñoz**

Akzesita 17-18 urteko sailean  
Frai Juan de Zumarraga Institutua





Ezin ezer esan

## 1. Pinudia

*Pinus Pinaster*, latinezko izena, izen zientifilkoa alegia, 1782a, ordea, landatzean gizonek jarritako zenbakia. Udaberrian izan nintzen landatua, ni bezalako asko bezala, gabonetan biluzik gelditu zen mendi magal batean.

Han landatu gintuzten eta han bizi ginen gu, lasai, gure patua zein zen jakin gabe etengabe hazten eta hazten. Landatu gintuztenean asko ez ginen metro erdira ere heltzen, eta orain berriz batzuk bi metrora ere heltzen dira. Denak gara antzerakoak, berde kolorezko konoak, jostorratz itxurako milaka hosto berderekin, ederrak benetan.

## 2. Zurrumurrua

Udazkenarekin batera heldu zen zurrumurrua. Ahoz aho zabaldu zen pinu guztietatik, gu ere gure artean komunikatu egiten garelako. Ez dugu ahorik, baina zuek, giza-kiok, entzun ezin dituzuen soinu asko egiten ditugu. Hasieran ez zuen inork sinisten, inork ez baitzuen ezer ikusi, entzun bakarrik. Nola izan zitekeen, guri bizia eman ziguten gizon berberak, lurrian zuloa egin eta landatu gintuztenek, basakeria hori egitea?

Baina ezinezkoa zen zurrumurru hori egia zela ikusi genuen denok, ondoko mendiko pinuek, garrasika, laguntza eskatzen zigutenean, orduan ikusi genuen dena, nola





lurretik ateratzen zituzten, sustraiak apurtuz eta geratzen zitzaizkien sustrai apurrak zakuetan sartuz lur pixka batekin. Horrela egon ziren, eta hiru egunetan kamioietan eraman zituzten han zeuden milaka pinuak. Pinudi guztia desagertu zen, eragindako lurra eta sasia besterik ez zen geratzen han.

Pare bat hilabete igaro zen pinudia akabatu zutenetik, gizonak berriro itzuli zirenean. Kamioiz ere etorri ziren eta gure amaiera zela pentsatu genuen, baina ez zen horrela izan, beste mendi batera joan ziren eta milaka zulo egin ondoren pinuak birlandatzen hasi ziren. Kamioitik atera zituzten, milaka zuhaitz txiki jarri zituzten, itxaropena berriro zitzaigun, ondorengo hauek sustraiak bota eta han finkatuko zirelakoan, baina laster uler-tu genuen, beraien momentua ere helduko zela, gure bila etorri zirenean.

### 3. Gure ordua

Udazkena zen, urte bat pasatu zen jada ondoko pinudiari gertatuaz geroztik, eta ia ahaztuta genuen. Goiz hotza zen, behe-lainoa zegoen mendi artean, eta urrunean entzun genuen kamioi hotsa hurbiltzen, heriotzaren hotsa. Aurreko urtean ikusitakoa bezala izan zen. Lurretik atera, kamioi batera igo eta handik eramaten gintuzten. Han nengoen ni, kamioi batean botata beste pinu askorekin pilatuta nora eramaten ninduten jakin gabe.

Gelditu zen kamioi zaratatsu hura. Eraikinez beteriko leku batera heldu ginen. Hori izango zen herria seguruenik, horri buruz entzunda nuen, baina ez nuen inoiz ikusi, bizi osoan ez nintzelako menditik mugitu. Herria, gizakiak bizi zireneko, eraikinez beteriko lekua omen zen eta hala zirudien, jende mordoak baitzegoen leku guztietatik eta eraikin piloa ere bai. Han utzi gintuzten, lorez beteriko gela ilun batean. Lore denda bat zela ohar-tu nintzen hurrengo egunean loreak eta pinuak saltzen hasi zirenean.

### 4. Bizitza berria

Han nengoen ni, goiz hotz hartan, gizon hura kotxez heldu zenean. Kotxetik jaitsi eta dendariarekin hitz egiten hasi zen, dendaria gizon zaharra zen, txikia eta zabala,



eta indartsua benetan. Ez zuten asko hitz egin. Gizonak ordaindu, gugana hurbildu eta goitik behera begiratu ondoren lepoan hartu eta bere kotxera eraman ninduen. Atzeko atea zabaldu eta han utzi ninduen beste bidaia bat egiteko prest.

Bidaia ez zen oso luzea izan. Bere etxera eraman ninduen. Han bere emaztea izango zen emakume bat eta ume txiki bat zeuden itxaroten. Ume txiki hori zen txarrena, hostoak kentzen zizkidan eta pila bat bolatxo eta kolorezko sokak eskegitzen zizkidan nire adar mehetan. Lorontzi batean sartu zizkidaten sustraiak eta enborraren beheko zatia, eta ehunka kolorezko bonbilla zituen kable bat jarri zidaten adarren artetik.

Hasieran ez zitzaidan asko axola, denak, batez ere ume txikia, nirekin egoten zirelako. Umeak hitz egiten zidan eta nirekin jolasten zuen, batzuetan min egiten zidan arren, hostoak kentzen zizkidalako eta gero jostorratz itxurako nire hosto horiekin marrazkiak egiten zituen lurrean. Azkenean zakarrontzian amaitzen zuten beti, amak batu eta bota egiten zituelako, horregatik beti hosto berriak behar zituen eta gehiago kentzen zizkidan.

Baina denbora pasatu ahala gero eta gutxiago egoten zen nirekin, telebista ikusten jartzen zen eta ez zidan jaramonik egiten. Egun batean opariz inguraturik esnatu nintzen. Hura bai zoramena! Umetxoak pozaren pozez zegoen, eta han egon zen, nire ondoan, goiz osoa opariak zabaltzen eta gero beraiekin jolasten.

Baina nireganako axolagabekeriak aurrera jarraitzen zuen, eta, handik gutxira, amak dena batu zuen, bolatxoak, koloredun kordelak, bonbillak... Seinale txarra zela sumatzen nuen nik. Ez nekien zer gertatuko zitzaidan, baina ezin zen oso ona izan. Egongelako izkina batean utzi ninduen amak, hormaren kontra. Ez zen denbora asko igaro gizona heldu eta lepoan hartuta etxetik atera ninduenean. Kontainer baten ondoan utzi ninduen botata.

Han egon nintzen botata egun piloak. Zabortegira doan kamioia pasatzen zen bai, baina ez gintuen batzen, gintuen esaten dut, ni ez nintzelako han pinu bakarra, beste bi zeuden, nire egoera berdinean, han botata. Orain arte bizirik iraun dugu, niri, besteei bezala, noizean behin lorontzira ura botatzen zigutelako, baina kalean sikatzen hasiak ginen. Hostoak zimeltzen hasiak ziren eta amaiera hurbil sumatzen nuen.

## 5. Azkeneko bidaia

Iluntzen hasia zen gure ondoan kamioi txiki bat gelditu zenean. Gizon handi bat irten zen barrutik, enborretik hartu eta atzeko aldera bota gintuen. Han gu bezalako pinu asko zeuden, batzuk siku-siku eginda, beste batzuk ez hainbeste. Bakoitzak bere istorioa zuen; ondokoak kontaktzen zidan bera dendan egon zela denbora guztian, ez zuela inork erosi eta azkenean bota egin zutela, beste batek umeak su eman ziola eta horrelako gauzak. Arrazoi batengatik edo beste batengatik denek amaitu zuten zakarrentzian eta han geunden, berriro ere kamioi batean, nora gindoazen jakin gabe eta hori galarazteko zer egin jakin gabe.

Heldu ginen azkenean, bidaia luzea eta oso mugitua izan zen, kamioia asko mugitzen zelako eta askotan gelditzen zelako pinu gehiago batzeko.

## 6. Amaiera tristea

Lantegi itxurako leku zikin batean utzi gintuzten botata, han egurrezko gauza zahar piloa zegoen, armairu zaharrak, aulki apurtuak, zuhaitz desberdinak etab. Bazirudien azkenean denon patua berdina izango zela.




Hurrengo goizean, gizonak lantegian agertzearekin batera heldu zen gure amaiera. Makina txikitzaile batera botatzen zituzten gauza guztiak. Azkenean hilik eta hauts bihurturik, nire bizia zertan oinarritu zen pentsatzen hasi nintzen, beti gizakien menpe, gizakien zerbitzura, ezer ezin esan gabe.

Pasatu da aroa, non zuhaitzak libre jaiotako hazi eta hil egiten ziren. Gaur egun gizakien menpe bizi gara. Beraiek erabakitzen dute non eta noiz landatu eta noiz moztuko gaituzten, eta ondoren gurekin zer egin, gabonetako apaingarri gisa erabili edo txikitu eta txotx bihurtu.

Eta orain hemen nago, edozein etxetako armairu bateko ohol zati bat naiz, nire zerrautsarekin, beste askorekin batera, egur aglomeratu zati bat besterik ez baituzten egin.

Nire bizitzaren historia hau irakurtzen bukatzen duzunean, hartu minutu bat eta pentsatu lore, zuhaitz, animalia edota edozein izaki bizidun erosten duzunean bizi bat erosten duzula. Eta bizia gauza guztien gainetik errespetatu behar da. Edonor edo edozein izanda biziduna, gizakiok bizitzeko eskubidea badugu, beste izaki bizidunek zergatik ez?



**Mikel Zubeldia Etxeberria**

Irabazlea18 urtetik gorakoen sailean





Bizkarretik, hain zuzen ere

*Keuner jaunak erantzun: “Ez dut nire bizkarra inork txikitzerik nahi. Izan ere, Boterea baino luzaroago bizi beharra daukat. (Bertolt Brecht)*

Galdutako kartazalak, Föergell enpresako akziodun nagusiaren esku egon behar-ko zuen ordubete barru, derrigor. Horrexegatik, ohizko irabazle maskara ez baina, erabat desitxuratutako karantza zurbila ageri zuen eguerdi hartan, Möergell enpresako zuzendari orokor, Ataulf Tarquus jaunak. Bizitzako lehen porrota erditzera balihoa bezala, eskuak giltzurrun aldean bilduta zeuzkan, eta izerdi patsetan zen, erabaki garrantzitsuenak hartzen zituen piraña-ontziari pega-pega eginda; begirada galduta eta pentsakor.

Matriuska erraldoi baten modukoa zen Föergell enpresa, are erraldoiagoa zen Möergell matriuskak mendean har zezan, aurkeztu beharreko dokumentu sekretuak zekartzan kartazalak. Hura aurkeztu besterik ez zuen Ataulf Tarquus jaunak, bi enpresen arteko absortzioa ahalbidetzeko. Batuketa estrategiko horren bitartez, Zoërgell-ek, hiruretan matriuska handienak, Moërgell gupidagabe ez irenstea erdietsiko zukeen Tarquus jaunak<sup>1</sup>. Hil ala biziko paperak ziren, beraz.

---

<sup>1</sup> *Ez da ahaztu behar, Foërgell, Moërgell eta Zoërgell matriuskak, hil berri zen Mattin Gorriren anaia zahar, Sam Beltxen jostailu zirela; ume erabat zital eta berekoia berau, Jainko damu-gabe baten semea.*

Tamalez, hor nonbait galduta zen kartazala.

Inork haren berri ematen ez zionez, halako batean, Ataulf Tarquusek buelta erdia eman eta *Jainkoarren! Non da kartazala!* orro egin zuen. Haren berunezko eskuturak kaoba-zur iluneko mahaian talka egin eta metalezko oihartzun, uhin, dardara zein Siberiako hotzak, Moërgell matriuskako horma guztiak gainditu eta, bost mila langileen lepo-buruetara barreiatu ziren, domino fitxa erreskaden modura.

Edozer gauza egiteko prest zegoen Ataulf Tarquus jauna paper horiek lortzearren.

Hain garrantzikoa zen kartazal hura, Dubio, enpresako postari ezgauzaren esku lohietan zebilela jakin izan balu, ja-ta oliba begiak bere eskuz atera eta Moërgelleko garabi altuenetik urkatuko zukeen. Dubio gizajoa ez zen ordea kanpoan gertatzen ari zenaren jakitun. Goizeko posta banaketa ia amaituta zeukala-eta, bazkal aurreko lo-susta egiteko asmoz, garai batean obusak fabrikatzen zituzten Moërgelleko pabilioi zikin eta ilunenera jo zuen. Zoko-moko hartan ezkatututa, ez zion inork enbarazurik egingo.

Gizon exkaxa zen Dubio, txoriño aurpegi gorrikaraduna. Koipeaz dekoratutako lan-jantzi laranja tripotxeraino askatuta zeraman eta, ile-xerlo urdinduak ageri zitzaizkion paparrean. Enpresa barnean posta banaketarako zerabilen patinetea zokoratu, prentsa zahar, trokel, eta gasezko labe korrokoilduen alboan, zorua tergalezko oihal batez estaliz, eta buruki moduan zahatoa ipinita, ohe antzeko bat moldatu zuen.

Minutu eskas batera lo zetzan, goxo-goxo; poltsiko zabalean, marroi koloreko kartazal lodi bat ageri zuelarik.

Obusez ari garela, ez da ahaztu behar Ataulf Tarquus jaunak, galera handiekin zen Moërgelleko zuzendaritzara iritsi, eta harturiko lehen erabakia, igorle, jasotzaile eta mezua zeukaten etorkizunik gabeko obusak ekoizteari utzi, eta ez mezurik, ez igorlerik, ez eta jasotzaile jakinik ez zuten pertsonen kontrako minaz ordezkatea izan zela<sup>2</sup>. Hortaz, inbertsio handiak burutu eta gero, *UNDER-APPLE* markako mina merke bezain eraginkorak merkaturatzea menturatu zen. Erabaki horren eraginez, Moërgellen negozioak xanpain-aparraren modura egin zuen gora. Huraxe zen momentuz, haren lorpenik handiena.

<sup>2</sup> Garai ilun hartan ez baitzegoen mundua txantxetarako, gatazkak txanpinooiak bezain azkar eta ugari Afrikako lur zartatu eta idorrak, hortaz, Moërgellen egindako UNDER-APPLE mina pozoitsuez hanpatzen hasi ziren gupidagabe, armen trader bihozberen bozkariorako.

Ataulf Tarquus jauna, enperadore handien modura, bere egintzez guztiz harro sentitzen baldin bazen ere, ez zegoen erabat kontent. Berak, aurrerago joan nahi zuen. Moërgell enpresako jabeek ontzi horretan agintzeko botere absolutuak eman zizkieten egun beretik, helburu bakarra baitzuen berak: Moërgell enpresaren betiereko lidergoa lortzearena, hain zuzen. Horretarako, enpresaren etorkizuna eta independentzia bermatzea derrigorrezkoa izango zen. Lehen neurri bezala, Foërgell, errifleak ekoizten zituen auzoko matruiska absorbitzea beraz, zilegi zen.

Nondik hasiko zen baina, Tarquus jauna, kartazalaren bila? Nola ebatziko zuen, itxuraz hain hutsala zirudien arazo larri hura? Moërgell hiri handi-mandi eta zatar baten modukoa zen, hainbat eta hainbat pabilioiez osaturikoa. Bost mila langile ziren zentsatuta, orotara. Ezbairik gabe, larrialditarako neurri zehatzak habian jartzea erabaki zuen. Hartarako, Esfinter kontseilari fidelarengana jo zuen. Berarentzako orakulu eta konfidente zen Esfinter jaunari itaunketa egin ondoren, berak esandakoa teknizismoz jositako antzeko hitz ederrekin errepikatu zuela ohartuta (ez zen losintxatarako garaia), Esfinter bera baino askozaz bizkorrago eta eraginkorrago zen Krutzger, azeri itxurako zuzendariordearengana jo zuen.

Krutzger jaunak, estatuko unibertsitate gorenetatik hautatuak ziren Moërgelleko berrehun buruzagiak premiaz bildu eta 'DI-DA' izeneko Plan orokorra osotu zuen bost minutuen buruan. Plan orokor honen arabera, bi taldetan banatu zuen Moërgelleko buruzagien tropela: ezgauzak eta are ezgauzagoak. Bigarrengoak antzarak ferratzera bidali zituen. Guztira, 180 zuzendari gutxiago eta 44 minutu besterik ez.



Bien bitartean Dubiok buelta erdia eman zuen, poliki-poliki, txokolatez bustiriko kruasana baino aurpegi gozoagoa ageriaz. Hain zegoen gustura, non ahozabalik, zoriontasunezko listu lerro bat -beirazko zubi garden legez- zerion, poltsikoan gordeta zuen kartazalean ainguratzen zena.

Dubio, enpresako gizajo ofiziala, lankide guztiaren begietara, *border-line* pailazo bat baino ez zen. Moxkor fama ongi irabazitakoa izanagatik, lankideek iseka egiten zioten gupidagabe; haizeak txorimaloari bezala. Inor ez zekien ez zekien zorionsu ote zen ala ez. Sentimendurik ba ote zuen. Eta are gehiago: inork ez zekien zehazki nongoa zen; inongoa baldin bazen. Hartaz zekiten bakarra, oso urrutiko herri batekoa zela, eta duela hogeita hamar urte, Moërgellera ailegatu baino lehenago, gaileta fabrika batean egin zuela lan. Besterik ez.

Eta Moërgell enpresaren mundua, errauts bihurtzen ari zen momentu berean -gauzak nola diren-, amets ederren bat egiten ariko zen gure Dubio, zeinetan berak hainbeste laket zituen errepideetako klubetako dama ederrak erdi biluzik agertuko ziren, seguru aski; azpiko antena piztuta baitzekarren.

Halako batean, Krutzger jaunak bere informazio sareen bitartez jakin zuen, kartazal hura Recquio izeneko kontu emaile batek, eman ziola Dubiori, Zuzendaritza Nagusira eraman zezan. Hor eten zen haria. Eta patinetean hamar minutu besterik iraun beharreko bidaiak, ez zuen oraindik bere jomuga iritsi. Recquio kontu emailea burumakur eta espantu aurpegiak irten zen Krutzger jaunaren bulegotik; bigarren honek errukirik gabe kaleratu baitzuen kontu emailea. Akats barkaezina eginagatik. Hamaika eta erdietan gertatu zen hura.

Alarma gorria piztu zen orduan. Non arraio ote zen Dubio? Urteetan, gixon maskal hartan erreparatu ez zutenek, haren bila hasi zen ero moduan. Hortaz, jendea lasterka ikus zitekeen pabilioi, bulego eta aparkalekuetan barrena. Alde batetik bestera zebiltzan, inolako logikarik gabe. Baina denbora oso zitala da eta, Dubio aurkitzeko aukerak segundoz segundo murrizten ari ziren. 29 minutu.

Moërgellen geratzen ziren hogeitaz buruzagien mahaiek iltzatu gabeko egurrezko mahaia ziruditen. Ukabilkadaz ukabilkada, mailuka ari baitziren etengabe, zentzuzko erabakirik hartu gabe zuzendariok. Gona motzeko idazkariak berriz, D-U-B-I-O hitza idaz-

makinan tapatzen zuten aldiko, zotinka hasten ziren. Eta sabelak tximeleta beltzez hantpatzen. Egoera jasan ezinezkoa zen. 28 eta erdi.

Bien bitartean finantza merkatuek, kartazalaren galerak, eta horrexek zekartzan ondorioen jakinarean gainean ziren eta estatuko burtsen indizeetan hondoa jo zuen Möergellek. Eta galbide berbera zeraman Föergell anaia bikiaren kotizazioak. Pertsonen aurkako minen *commodity-en* merkatuaren prezioari ere eragin zion. Izugarri beheraka egin zuen. Hortaz, Moërgell enpresako ekoizpena geratu egin zen, eta esportazioko merkatutara bidean ziren dozenaka ontziak geratu eta atzera portuetarako bidea hartu zuren. Izan ere, pertsonen aurkako minen salneurria egonkortu beharra baitzegoen, merkatutik minak kenduta. 28 minutu.

Lotan zegoela, hatzak zakil inguruan bilduta zeuzkan Dubiok. Hatz batzuk falta zitzaizkion. Enpresa guztiko megafonoak etengabe Dubiori deika ari ziren, baina Dubio ez bide zen ohartzen. Berriz ere posturaz aldatu zuen. Kartazala mesedez itzuli zezala, ez zela harenganako zigorrak izango eta, are gehiago kartazal itzultzera, sari ederra izango zuela, ari zen errepikatzen bozgorailua, obsesiboki. Ez zen, alta, megafonoaren oihartzuna pabilioi zahar hartara, beharrezko intentsitatez heltzen.

Bakardade absolutuaren ontzia, itsas-hegitik habiatzen ikusi zuen une batez Ataulf Tarquusek. Sobera damutu zen, konpetentziak aspaldi egina zuen bezala, sistema pneumatikoaz garraiatutako posta sistema ez jartzeaz, edota hainbeste barreatzen ari zen posta elektronikoa usatzeaz. Bere garaian Dubio ez despeditu izanenagatik damu zen. *Zakurra hil, eta errabiarik ez*, pentsatu zuen. 27 minutu baino ez.

Ordu bata hogeai gutxi aldera polizia azaldu zen Moërgellen, beti bezala berandu, eta ezorduz. Berrogeita hamar polizi zakur eta guzti. Ezbairik gabe, Moërgell enpresako zoko guztiak xehe-mehe miatzen hasi ziren. Baita Dubioren berri izan, eta haren egonlekua ezkutatzen ari zitezkeen gizon susmagarriari galdeketak egiten hasi. Ganoragabe.

Zurrunmurrak edonora harrotu eta telebista kateek, krisiaz jabetuta, zabor-programazioa etetea erabaki zuten; urgentziatzko buletinak atera zituzten. Pantailek, kanpotik itxita, ejertziotak gordetako Moërgellen irudiak etengabe errepikatzen zituzten. Barne Arazoetako Ministroak *-dandy* gaumindu itxurako totela bera-, “Enpresa Terrorismo” ize naz bataiatu zuen hura, prentsaurreko ezohizko baten bitartez; Dubioren izena aipatzera





ausartu gabe. Izen ponposo berri horrek estatu osoko herritarrek zertxobait lasaitu zituen; gaitzak izen-abizenak zituen-eta.

Zakur baten zaunka aditu zuen Dubiok inguruan. Begi bakarra ireki eta halako batean, linterna batek nola segundo luze batez bete-betean jo zuen ohartu zen. *Zer izango zen argi hura?* pentsatu zuen. Linternaren argi-zorrotadak beste norabide bat hartu zuten eta zaunkak urrutiratu egin ziren. Dubiok berriz begiak itxi zuen. Handik gutxira, nagiak atera eta ohe inprobisatu hartatik jaiki zen. Galtza tartea bustita zuen. Orban hura ikusita, irribarre urduri alkoholikoa egin zuen.

Ia ordu bata jo zuen eta bazkari legea egiteko asmoz, pabilioi hura utzi eta punpen instalazioaren lekutik, kantinarako bidea hartu zuen.

Egun hartara arte, denek Dubioren bizkarrera barre egiten zuten (baita zuzenean bere aurpegira), eta nano ezgauzena baino okerrago tratatzen zuten. Hala eta guztiz ere, Dubio bere txikitasunean zoriontsu zenez, eta ez zuen inortaz trufatzeko beharrik sentitzen. Irribarre eginez, txistu eginez edo kopla pikanteak kantatuz itzultzen zizkien isekak. Era horretan, Moërgelleko bulegoetako seriotasun gaixotiak, azkazalak arbelean bezala irrist egiten zuen.

Ataulf Tarquus jaunak berak, Dubiok zuzendari orokorren bulegora jo zuen egunen batean, besteen aurrean lotsagarri utzi zuen. Baina, Dubiok irribarreaz itzuli zizkion irain-ordainak. Hartaz oroitu zen, Tarquus jauna, Gong itxurako bulegoko paretako erloju handi-mandiari buelta erdia ematea erabaki zuenean. 17 minutu.

Dubiok arratsalde hartan bertan lan pixka baten lan egingo zuen –ez gehiegi, gehienera jota, alde batetik besterako hiru joan itzuli- eta banaketa amaitzerakoan, etxera ez baina, auzoko tabernetan narrasti moduan ibiliko zen, harik eta gauerdia iristen zen arte. Arrats parteko bakarkako ardo merkearen txikiteoan jarrita gogoa<sup>3</sup>, punpa zentrifugoen instalaziora zeramaten metalezko eskailera luzeak jaitsi zituen.

---

<sup>3</sup> Normala da Dubiok lanetik irten eta berehala etxerako gogorik ez edukitzea. Izan ere, bertara ailegatzeko aldapa itzela igo behar baitzuen; herritik auzora 80 eskailera, ondoren bidezidor bat, eta gero beste 65 eskailerako propina; hori guztia, igogailurik gabeko zazpigarren solairuan aurkitzen zen etxe-zulo ziztrin eta ospel batetan sartzeko. Ezkonge zen Dubio. Eta geratzen zitzaizkion familiako bakanak (lehengusina muxurdin pare) bostehun kilometrotara bizi ziren eta bostehun kilometrotara zuen familia ez zen jada bere familia, Dubiorengandik jasotzea espero zuten herentzia ardotan likidotzen ari zela konturatu ziren egun berberetik.



Eguerdiko ordu bata izateko hamalau minutu baino falta ez zirenean, megafo-noetatik: *Azken odol tanta isuri arte defenda dezagun Moëlgell!* leloa isurtzen utzi zuen, jada bere senetik aterata zegoen Krutzger jaunak. Inork ez zien kasu izpirik egiten ordu-rako, megafonoei. Anabasa izugarrikoa zen.

Bainugelara jo zuen Ataulf Tarqqusek, aurpegia freskatzera. Edozein unean tro-nua galtzera doan enperadorearen aurpegiera zurrunaz ordaindu zion ispiluak. Zuzendari samalden gortearen gorbatek gora egiten zuten kristalezko lanparen distirara beha. Etorkizuna, ilusio bilakatzen ari zitzaien.

Lur jota, arratoiek karabeletan legez, enpresa uzten hasiak ziren.

*Bost minutu, hareazko erloju txiki bat, baino ez, nireak egin du. Kaput!* pen-tsatu zuen bere baitan Ataulf Tarqqus jaunak. Gorbata lasatu zuen. Derrotatua zen.

Jende guztiak ihes egin zionean, bakardade absolutuaren ontziaren sirena aditu zuen Ataulf Tarqqusek urrunean. Bulegoko kaoba-zurezko mahai amaiezinean mizpira-arbola bonsaiaren lur idortuan, malko bat isuri zitzaion. Minutu gutxi barru, bere karrerak hondoa joko zuen. Baita beregain zituen berrehun zuzendarienak ere. Zoërgellek gupida-gabe irentsiko zituen epe motzera. Enpresa itxi egingo zuten. Moërgelleko bost mila lagun hortaz, kalera joango ziren.

Ez zen hori baina, Ataulf Tarqqus gehien kezkatzen zuena. Ataulf Tarqqus gehien kezkatzen zuena zera zen: goi-mailako jendea soilik bizi zeneko urbanizaziotik ego-tziak izango zirela. Eta ez hori bakarrik: bera bazkide zeneko golf klubetik kaleratua izan-go zela; garai batean hainbeste miresten zuten lagunek frakasatu deituko ziotela, ez zute-la neguan hartz-ehizara gonbidatuko, eta okerrago dena, ezikusi egingo ziotela.

Emaztea berriz, bere maitale fin *American Express* kreditu txartelik gabe, depre-siorik handienean jausiko zen, kokaina eta edanari atxikiko zitzaion. Eta alabatxoak... Ai! Bere lanarengatik oso tarteka ikusten zituen alabatxo maiteak, hain bizkorrak izatetik, era-bat aldrebestuko ziren, galbidera joango, abandonatuko.

Erabaki ausartena eta koldarrena hartzea deliberatu zuen. Zirt-zart.

Eskuak buru gainean zituela, bulegotik lasterka irten zen Ataulf Tarqqus. Enpresan geratzen ziren gizaseme bakanek, erotu zela pentsatu zuten. Bere pausu luze eta zurrek, estoldak ziren ubide sekretu batetara eraman zuten halako batean. Metro erdi-

ko ate txiki batetik sartu beharra zegoenez, sartu baino lehenago, gorbata kendu, alkan-dora erantzi, faxa askatu, eta galtzak erantzi zituen.

Bata bestearen ondoan lerrokatuta ziren karakol erraldoi itxurako punpa zentri-fugoan instalazio umelean, Dubio sobera harritu zen, gizon biluzi bat ubidearen beste aldera ikuskatu zuenean. Aurre aurrean zuen gizon horrek, berearen oso antzeko tripotxa zuela ohartu zen. Emakume galtzerdi urdin-ilunez, zisne erietan patetikoena irudi zuen Ondoren hain ondo jarritako ileorde beltza erauzi, ur-jauzi itxurako ile luze bakan batzuk azaldu zitzaizkion. Dubiok ezin sinetsi zezakeen Ataulf Tarquuseen aurre aurrean zegoenik. Atributurik gabe, ur tanta bi baitziruditen Tarquusek eta berak.

Alkohol usaineko irriño hits batek ihes egin zion Dubiori. Behingoan, anaia bikia iruditzen zitzaion aurrez-aurreko gizon hantuste hura. Haren atentzioa lortzearen, kartazal marroia atera zuen poltsikotik eta gogor airean astindu. *Kaixo!* esan zion.

Hura ezin eramanda, ahuspeztu egin zen Tarquus. Ur lohien erreflexuari begira geratu zen, lelotuta bezala. Tarquusek orduan dena argi ikusi zuen. Dubio, enpresako postari ziztrinena, bere kontura trufa makabro bat ospatzen ari zen; mendeku hartzen ari zen<sup>4</sup>.

Bizkarretik, hain zuzen ere.



<sup>4</sup> nola milaka urte lehenago behinolako Errege Ataulfo bisigodoa, bere nano txantxalariak barrezka etengabe aritu eta, kasualitatez Dubio izena zuen nano ñimiño horrek, Hispania penintsularen ekialdeko erreka batean, beretaz barre eginagatik mendeku hartuta, zintzurra ebaki zion. Bizkarretik, hain zuzen ere.

Gauza horiek guztiak uretan islatuta ikustea iruditu zitzaion, hain kultura zabala ageri zuen, Ataulf Tarquusi. Hartara, bere bulegoko piraña-ontzia buru gainera erori izan balitzaio bezala sentitzen zen. Bere-bereak zituen bulegoko piraña beldurgarriek hozka egin izan baliote bezala; batzuek lepotik, bestetziek zintzurretik, belarrietatik, orpotik... gorri koloreko zirimolaren bihotzera.

Horregatik, agian, bota zuen Ataulf Tarquusek bere burua ubidetik.

Dubio gizajoa berriz, ahoa bete hotz, mugiezin geratu zen, harik eta Ataulf Tarquus erori zen inguruan burbuilak desagertu ziren arte. Eta pare bat minutu beranduago, Moërgelleko enperadorea ubidetik irteten ez zela ohartuta, itoaren desagerpenaren abisua ematera joan zen eta, bide batez, ahaztuta soinean zekarren kartazal hura Krutzger jaunari entregatzera.

Ordu bata puntuan izan arren, beranduegi zen.

julene azpeitia  
lehiaketa 2004

**b e r t s o**  
**p a p e r a k**







## Nerea Oñate

Irabazlea 11-12 urteko sailean  
Santa Rita - San Antonio Ikastetxea



## Nire baloia

Nire munduko altxorra  
da nire baloia  
nahiko gustukoa dut  
baina da marroia  
Oso gogorra da ta  
dirudi meloia  
buruz eman ezker  
zelako txintxoia

Batzuetan egiten dut  
erabat porrota  
indartsu bota ezker  
apurtzen dut bota  
Arazo horregatik  
amak bronka bota  
hori gertatzen bada  
gelditzen naiz jota

Batzutan eguzki ta  
bestetan elurra  
nik hartu dudanean  
gogor dago lurra  
Baloiak ematen du  
jausitako urra  
nik asko maitatzen dut  
dirudi gezurra



bertso paperak







## Mikel Zumarraga Azkarate

Irabazlea 13-14 urteko sailean  
Kurutziaga ikastola

---



11-M

## BAKARRIK UTZI NAUZU

Galduta dut gogoa  
galduta burua  
zergatik egon zinen  
tren hartan sartua  
nire etxea da lurra  
zurea zerua  
zu izango zara beti  
nire aingerua

Bakarrik utzi nauzu  
bakarti eta hotz  
nire bihotz barruan  
maitasuna arrotz  
beti nago sufritzen  
bizia nahi dut motz  
nire bihotzean taupada  
nire ahoan ahots  
HERRIAK HITZ EGIN DU



Guzti hau egiteko  
ez dau arrazoirik  
egia behar dugu  
ez beste gezurrik  
zer e(g)in zuen herriak  
jartzeko bonbarik  
bakean bizitzea  
ez da(g)o beste nahirik

Kalera irteteko  
heldu da garaia  
guda ezabatzeko  
bakea da nahia  
denok egin behar dugu  
aurkitu etsaia  
ta bihurtu behar dogu  
mundu hau alaia



## **Kepa Bizkarra Langara**

Akzesita 15-16 urteko sailean  
San Jose - Jesuitak ikastetxea



## Gure herria

Nik orain emango dut  
nire iritzia  
guk daukagun herria  
da nahiko bitxia  
gudariak gerrara  
galtzera bizia  
dut honela ikusten  
zure Espainia.

Terrorismoaren aurka  
daudela diote  
baina Irakekoa  
berdina ez ote  
petrolioagatik  
hil dira hainbeste  
oraindik hiltzen dira  
baina noiz arte?



bertso paperak



Martxoaren hamaikan  
atentatu handia  
ETArri leporatu  
zioten guztia  
hurrengo egunetan  
jakin zen egia  
gero presidenteak  
jaso zuen saria.

Presidenteak jaso  
zuen bai saria  
jende askoren ustez  
zuen merezia  
*Prestigena* lehenik  
a ze desgrazia  
azkenean Iraken  
galdu zuen auzia.

Martxoak hamalauan  
aldaketa sortu  
presidente zaharrak  
Moncloa agurtu  
berria berriz orain  
jauregian sartu  
arazoak konpontzen  
ezin da aspertu.



bertso paperak

